

## "¡Somos lucha obrera!"

5as Jornadas sobre lucha obrera en Ezkerraldea

## "Langile borroka gara!"

Ezkerraldeko langile borrokari buruzko 5. Jardunaldiak

**MAIATZAK 2017 MAYO / SESTAO**

**TXIBILENEA KULTUGUNEA\***

**5, Ostirala-Viernes, 19:00 / \*Biblioteca Municipal**

**Jardunaldien aurkezpena + Presentación libro “AHV, Analisis crítico del cierre y testimonios vitales” / Xabier Barrutia UPV + extrabajadores AHV**

**Jardunaldien aurkezpena / Presentación de las Jornadas**

Ezkerraldeko bizilagunok langile borroka gara. Gaur egungo gazteriak agian ez du ezagutzen gure borrokaren iragana, eta zentru komertzial eta lan prekarioen artean bizi dira. Baina gure ez badugu hemen bizi izan ditugun historiak eta borrokak ahaztea eta kapitalismoak historiaren gatazka ere irabaztea, behin eta berriz gogorarazi beharko ditugu gure historiaren ildoak izan diren langile borrokak.

Aurten 5. jardunaldiak burutuko ditugu eta aurreko 4ak bezala, Sestaoko Txabarri 6 kalean kokatutako dagoen aintzineko “Aprendiz Eskola”n izango dira, hain zuzen ere, gaur egungo Txirbilenea kulturgunean. Bizkaiko Labe Garaiekiko lotura handia izan duen leku honek esparru librea, asanblearioa, autogestionatua eta okupatua bihurtu dugu. Jardunaldi hauen asmoa kontzientzia sortzea da, horretarako gure iraganari begiratu, pentsatzeko eta eztabaidatzeko guneak irekiko ditugu eta Ezkerraldean bizi izan ditugun langile borrokak eta elkartasun adibideak berbiziko ditugu.

Jardunaldi hauen antolatzaileok lehenengo aurkezpena Sestaoko Udal Liburutegian egingo dugu eta bertan parte hartu nahi duten lagun guztiei etortzeko gonbidapena luzatuko diegu. Aurkezpen honen ostean lehengo ekimena izango da:

**“AHV, Análisis crítico del cierre y testimonios vitales” liburuaren aurkezpena.**

Bere idazlea eta UPV/EHU ko irakaslea den Xabier Barrutia bertan egongo da, B.L.G.ko langile ohiekin batera.

1996 urtean “Bizkaiko Labe Garaiak” enpresa betirako itxi zuten, “Bizkaiko Altxairutegi Konpaktua” lekukoa hartuz. Orduan iraganean geratu zen B.L.G.en historia, industrializazio basatia, berregiturazio gogorrak.... Eta hori dela eta maila handiko ondoriak pairatu ditugu, muga ekonomiko guztiak gaindituz.

Xabier Barrutia Etxebarria, Sarriko fakultatean ekonomia irakaslea, Bizkaiko Labe Garaien bideragarritasunari buruzko doktoretza-tesia egin zuen eta ixtearen zergatiak aztertu zituen. 1993 urtean hasi zuen bere tesia, “Burdin-martxa”-ren ondorengo urtean. Martxa horretan Bizkaiko Labe Garaietako eta Ensidetako 500 langile inguruk euren aldarrikapenak Madrilera eramane zituzten. Birmoldaketa industrialaren egunak ziren eta ordutik 1999 urtera arte Xabierrek elkarrizketak eta informazioa jaso zituen. Datu guzti hoiek “Altos Hornos de Vizcaya. Análisis crítico del cierre y testimonios vitales” biltzen dira, 2013 urtean argitaratutako liburuan.

Hain handia izan zen eta tradizio handi izan zuen enpresa horren bideragarritasuna aztertu zuen. Erabilitako metodoetako bat honako hau izan zen: nazioarteko mailan sektorearen egoera aztertu eta B.L.G.en bizitzan parte hartu duten pertsonak (zuzendariak, teknikoak, langileak...) elkarrizketatzea. Itxiarekin lotura izan zuten beste eragileak ere elkarrizketatu zituen: Ensidesa, Espainako gobernua, Finlandiako Rautaruukki burdin enpresa (B.L.G. en antzekoa zena)

Ikerketa honen helburua B.L.G. zergaitik itzi zuten jakitea da. XIX mendearen erdialdean Barakaldoko "Nuestra Señora del Carmen" fundazioa B.L.G.en aitzindaria izan zen. XX lehenengo herenean (1925-1932) lehenengo "Lan Berrien Plana" burutu zen, eta geroxeago, Frankoren garaian, gobernua B.L.G.ekiko politika interbentzionista izan zuen. Inbertsio gutxi egin ziren urte haietan, baina geroxeago, 60. hamarkadan, enpresaren kudeaketa indartzen saiatu zen eta teknikoki Estatu Batuek aportazio garrantzitsuak egin zituen.

Baina 1990 hamarkadaren hasieran estatu espainarreko gobernua B.L.G. enpresa ixteko erabakia hartu zuen. 1988 urtetik aurrera europaren siderurgiaren politika liberalagoa bihurtu zen. B.L.G. enpresa kontratu erabiltzen ziren zergatiak hauek ziren: portutik urrun zegoela, fabrika bertan zeukan portua kalado txikikoa zela, enpresa txikia zela, esparru mugatu batean... Baina Xabier Barrutiaren ustez ixteko aitzakiak baino ez ziren, enpresaren bideragarritasun ekonomikoa lortzeko mugak pasatzen zituen eta bere tamaina handitzeko planteatutako planak Espainako Gobernua atzera bota izan zituen betidanik. Idazlearen ustez akats galanta izan zen B.L.G. en itxiera eta gaur egun aberastasuna sortzen segituko zuen enpresa zen.

## **6, Larunbata-Sábado / Txirbilenea Kulturgunea**

### **Herri bazkaria / Comida Popular Solidaria (12€) + Charla Plataforma de Damnificadxs por el incendio de Sestao**

#### **Herri Bazkaria + hitzaldia: Sestaoko sutearen kaltetuen plataforma.**

#### **14:30 / Elkartasun herri bazkaria, plataforma laguntzeko**

MENUA 12 E: Entsalada, babarrunak, sakramentua, postrea (begetarianoei, beganoei eta alergikoei alde aurretik abisatzeko eskatzen diegu)

\*\*Bonos disponibles en bares Sestao: Bar Txurruka, Ekintza Taberna y Salón de Juegos KAIKU. Bonoak eskuragarri dituzue Sestaoko taberna hauetan: Txurruka Taberna, Ekintza eta KAIKU joko-aretoa

#### **17.00/ Mahai gaineko eztabaida + hitzaldia: Bide Nagusi 80 kaleko bizilagunen borroka.**

Hitzaldi honetan bi helburu nagusi izango ditugu: haien egoeraren berri ematea eta interesatuek euren etxea galduez gero, nola jokatu behar duten jakitea. Borroka hau batasuna, sormena eta elkartasunaren adibide nabarmengarria da, hori dela eta Txirbileneatik gure elkartasuna adierazi nahi diegu.

## **7, Igandea-Domingo, 11:00 / Estación de RENFE Galindo**

### **Visita guiada Babcock & Wilcox / Miguel Ángel Martínez, Asoc. Vasca de Patrimonio Industrial.**

"Industria aberatsuanetik porrotera" izendako bisita gidatuan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizugu. Miguel Angel Martinezek, Patrimonio industrial eta Herri lanaren euskal elkartearen izenean, BABCOCK WILCOX enpresa egon zen lurretatik ibilbide historikoa egingo digu: Enpresa honek izandako garrantzia, bere garapena, bere beherakada, eta gaur egungo hondamenei buruzko azalpenak. Bazatuz? Galindon dagoen RENFE geltokian geratuko gara, goizeko 11etan, elkarrekin joateko.

## 9, Asteartea-Martes / Txirbilenea Kulturgunea

### **18:30 / Inauguración Exposición “Orígenes de la lucha obrera” Museo de la Minería del País Vasco.**

Meatzaren Museoa jardunaldi hauetarako bereziki egindako panelak ikusteko aukera izango dugu. 100zm x 70zm tamainako panel horizontalak non agertzen diren aintzineko testuak, argazkiak, dokumentuak, azalpenak, ... bai euskaraz eta gaztelaniaz ere. Meatzaren Museoan egindako erakusketa honek Bizkaiko langileen borroken gertaerarik garrantzitsuenak jasotzen ditu.

### **19:00 / Hitzaldia/Charla: “100 años de la Revolución bolchevique” Boltxe Kolektiboa**

Zein da duela 100 urte izandako iraultza sobietikoak gaur egun daukan garrantzia?. “Boltxe Kolektiboa”ri esker, Errusian langileek egindako iraultzaren laburpena egingo dugu, nola antolatu ziren “soviets”etan, eta gaur egungo daukan garrantzia eta indarra gure XXI mendeko Euskal Herrian.

## 10, Asteazkena-Miércoles, 19:00 / Txirbilenea Kulturgunea

### **Zinema zikoa/ Ciclo Cine “Trabajo, Precariedad y Resistencia 1”: Proyección “La Sal de la tierra”ren proiektzioa (USA, 1954) + Mahai-ingurua/Debate**

Emakumearen emantzioazioaren aldeko borroka hizpide duen film aitzindaria, zeina AEBetan 1950.hamarkadan debekatuta egon zen. Mexiko Berrian “Empire Zinc Company”-ren aurkako greba luze eta gogor baten gora-beherak erakusten ditu: meatzari, korporazio eta indar polizialen jokabideak erakutsiz eta lehen planoan emakumeen gaitasunak egoera amaitzear dagoela dirudienean jartzen ditu. Filmaketa taldeak zenbait aktore eta aktorea profesionalekin lan egin zuten arren, aktore-zerrenda benetako greban parte hartu zuten meatzari eta hauen familiez osatzen da batez ere.

Filmaren zuzendariak, Herbert J. Biberman, 1950.hamarkadako zentzura garaian HUAC eta FBIaren jazarpena jaso zuen zinemagileetako bat izan zen, Bibermanen joera politikoak eta zenbait planteamendu komunistekiko begikotasuna zirela medio. HUACren aurrean azaltzeari uko egitearen ondorioz, 6 hilabete espetxeratuta igaro behar izan zituen eta ondoren Hollywoodean lan egitea debekatua zuten zerrenda beltzean sartu zuten. Egoera hark „Sal de la Tierra“ zinema independentearen produktu bezala filmatzea erraztu zuen, zinema industriaren babes eta laguntzarik gabe.

## 20, Larunbata-Sábado, 10:30 / \*Parking Zipis Galindo

### **Meatzaritzaren Museora bisita gidatua/ Visita guiada Museo de la Minería + Meatz-etxea Zugaztietan**

### **11:00 /Bisita gidatua Euskal Herriko Meatzaritzaren Museora /Visita guiada Museo de la Minería del País Vasco**

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta 1986. urtean sortu zen, Meatzaritzaren Museoaren Kultur Elkarteak sortu zen urte berean, gizarte-ekimen batetik. Elkarte hori, besteak beste, meatzari ohiek eta siderurgiako beste langile ohi batzuek osatu zuten; garai hartako industria-krisi larriaren ondorioz, ordura arte Bizkaiko funtsa izan ziren elementuak baztertuta gelditzen ari zirela ikusita sortu zuten elkarteak. Elkarteak meatzaritzak sortutako elementuak berreskuratu eta zaintzen ditu, modu desinteresatuan; bagonetak, lanabesak, argazkiak eta dokumentuak, besteak beste. Gainera, gure historiaren zati hori ahaztuta gera ez dadin, 2002an Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa sortu zuten, Abanto Zierbenako Udalarekin batera.2001. urtean Museoa ireki zuten, Gallarta auzoko Hiltegi Zaharrean. Hala, Meatzaritzaren Museoaren Elkarteak bere helburuetako bat bete zuen: hots, urteetan zehar mendi eta lantegietan bildutako piezak, lanabesak, makinak eta dokumentazioa jendaurrean erakutsi eta ezagutzera ematea. Orduz geroztik, etengabe jarraitu du lanean; monografiak editatzen eta era guztietako

publikoarentzat erakusketak eta zabalkunde-jarduerak antolatzen. Ahozko lekukotzak jasotzeko lanak eta ikerketak ere sustatu izan ditu, eta gaur egun, hausnarketa estrategikoa egiten dihardu buru-belarri, etorkizuneko proiektuei behar bezala aurre egiteko; besteak beste, eraikin berria eraikitzeko.

### **13:00 /Bisita gidatua Zugaztietako meatz-etxe batera/ Visita guiada a una Casa Minera en La Arboleda**

Zugaztietako meatz-etxeetako bat bisitatuko dugu; bertan burdinaren indusketan aritzen ziren familiak bizi ziren eta Bizkaiko garapen industrial eta ekonomikoaren abiapuntua izan ziren. Etxea duela 100 urte baino gehiago eraikia izan zen eta 2012an BFAak berreraiki zuen, meatzari familien bizitza nolakoa ote zen erakusteko asmoz.

### **24, Asteazkena-Miércoles, 19:00 / Txirbilenea Kulturgunea**

#### **Zinema zikloa/ Ciclo Cine “Trabajo, Precariedad y Resistencia 2”: Proyección “Las Nieves del Kilimanjaro” (Francia, 2011) + Mahai-ingurua/ Debate**

Gaur egungo gizartearen urritasuna eta ezegonkortasunaren forma ezberdinak islatzen dituen film garaikidea, enpleguaren galera eta lan sindikalaren kontraesanaz jorratzen da, besteak beste.

Sinopsia: Lanpostua galdu zuen arren, badira 30 urte Michen zoriontsu bizi dela Marie-Clairekin. Bikotearen seme-alaba eta ilobek zoriontasunez betetzen dituzte. Lagun-minak dituzte. Harro daude norberaren ekintza sindikal eta politikoez. Kontzientzia begirada bezain garbi dute. Ongizate egoerak eztanda egiten du baina, gizon enmaskaratu eta armatu bik Michael eta Marie-Clair eraso, jipoitu, lotu eta hauen kreditu-txartelekin alde egin eta gero.

### **27, Larunbata-Sábado, Egun osoa / Txirbilenea Kulturgunea**

#### **ANARKIAREN JAIALDIA:**

Haurrentzako jolasak/ Juegos para niños + herri bazkaria/comida popular + KONTZERTUAK:

Maniatica + The Barrenos + El Pitbull + Tu padre en bolas + Etxando Pestes

**(+ info: CNT Barakaldo)**

### **31, Asteazkena-Miércoles), 19:00 / Txirbilenea Kulturgunea**

#### **Zinema zikloa/ Ciclo Cine “Trabajo, Precariedad y Resistencia 3”: Proyección “NOSOTRAS, Mujeres de Euskalduna” (EH, 2016) + Mahai-ingurua protagonisten partehartzearekin/ Debate con la participación de sus protagonistas**

Emakumeen rola astilleroren ixtearen aurkako mobilizazioetan 1984an aztertzen dituen dokumentala da hau.

Araitz Rodríguezek, Astilleros de Euskaldunako langile baten alabak, Bilbon 1983 eta 1988 artean garatutako Euskaldunaren ixtearen aurkako borrokaren memoria berreraikitzen du. Berreraikuntza egiteko, bere amaren eta Asamblea de Mujeres de Euskalduna (AME, 1984) langile grebalarien aldeko taldean parte hartu zuten beste hainbat emakumeren begiradaz baliatzen da. Porrotaz gain, dokumental honetan emakumeen inplikazioa ikus daiteke borroka hartan; ama eta emazte rola bakarrik esleitzen zitzaizkien emakume hauentzako borrokan parte hartzeak norberaren baieztapena, kontzientzia hartzea eta emakumeen ahalduntzea suposatu zuen, emakume izateak dakartzan traben aurrean, ingurune maskulino batean.

## **KONTAKTUA – ELKARRIZKETAK\***

E-mail: [kulturgune@gmail.com](mailto:kulturgune@gmail.com)

Euskara: 665.72.90.31 (Jabi) / 665716474 (Rober)  
Castellano: 695.71.97.62 (Eneko) / 660.93.54.19 (Isabel)

\*Eskatzekotan, jardunaldietan parte hartuko duten eragile eta pertsonekin ere elkarrizketak lotzeko aukera izango genuke.

**Antolatzailea: Txirbilenea Kulturgunea**

[www.txirbilenea.org](http://www.txirbilenea.org)

**Laguntzaileak: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa + ESK Sindikatua + CNT Sindikatua + Boltxe kolektiboa + Asoc. Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública + Plataforma Damnificadxs por el Incendio de Sestao**